**non:**
Usurbilen

**noiz:**
Urriaren 30ea, 31an eta
azaroaren 1ean

# BOOKTEGI

## JAIALDIA 2026

Usurbilgo Udala

noaua

zumarte
usurbilgo musika eskola

BOOKTEGI
Euskal literatura denon eskura

# Zumarte Musika Eskolan
* Sutegi Kultur Etxean
> Sarrerak usurbilkultura.eus -en

urriaren 30ean - 19:00etan * >

Solasaldia

**Ruper Ordorikarekin**

urriaren 31n - 10:30etan #

***Elkarri Irakurriz*** solasaldiak

17:00etan *

***Booktubers*** bideoak

***Arbaso Eguna*** mahai-jokoa

19:00etan * >

**Ruper Ordorika & Mugalariak**

azaroaren 1ean – 11:00etan *

**Mihise – *Ahaldatu*** filma

12:00etan *

***Anariketa***

Iñigo Santrustegi
Itxaro Borda
Agustin Arrieta
Amaiur Epher

Bea Salaberri
Ruper Ordorika
Lizar Begoña
Irati Zubia

Harkaitz Cano
Mihise
Ugaitz Agirre
Udarregi Ikastola

# BOOKTEGI

JAIALDIA 2026

Solasaldia

# Ruper Ordorikarekin

**non:**
Sutegi Kultur Etxean

**noiz:**
Urriaren 30ean - 19:00etan

**nola:**
Sarrerak usurbilkultura.eus –en daude eskuragai.



2025eko Booktegi Jaialdian Rupertorio ekitaldia antolatu genuen non hainbat lagunek abesti bana hautatu zuten, eta nork bere erara zuzenean interpretatu.

Aurten, Ruper Ordorikaren kontzertuaz gain, solasaldia ere izango dugu, musika, letra eta, oro har, kulturaren inguruan solasteko abagune bikaina.

Solasaldiaren moderatzaileak Itxaro Borda eta Aritz Branton izango dira, eta Booktegiko bazkideek bidalitako galderak partekatuko dituzte Ruperrekin.



BOOKTEGI

JAIALDIA 2026

Solasaldiak

# *Elkarri Irakurriz*

**non:**
Zumarte Musika Eskola

**noiz:**
Urriaren 31n – 10:30etan

2020tik hona, 37 idazlek ipuin bana ekarri dute Booktegiren Elkarri Irakurriz egitasmora, eta aurten beste sei idazle hauen ekarpenak izango ditugu:

| ***Sotoa* taldea:** | ***Ganbara* taldea:** |
| --- | --- |
| Bea Salaberri | Amaiur Epher |
| Iñigo Santrustegi | Lizar Begoña |
| Harkaitz Cano | Agustin Arrieta |

Bi solasaldiak urriaren 31n egingo ditugu, eta tartean mokadu bat hartzeko aukera izango dugu. Ipuinak izango dituzte mintzagai idazleek, baita literatura eta kultur orokorra ere.

Irati Zubia izango da moderatzailea. Bestetik, egun horretan Amaiur ezin da etorri, eta Ugaitz Agirrek ordezkatuko du.



BOOKTEGI
JAIALDIA 2026

Bideoak

# Booktubers



**non:**
Sutegi Kultur Etxean

**noiz:**
Urriaren 31n - 17:00etan

Udarregi Iksatolako ikasleek, iaz bezala, hainbat liburu gomendatuko dizkigute bideo-formatuan.

Mahai-jokoa

# Arbaso Eguna



Arbaso Eguna mahai-jolas narratibo eta kolaboratiboa da. Rol-jolasaren tresnak erabiltzen ditu, baina ez da beharrezkoa aurretik rol-jokoetan esperientziarik izatea. Helburua erraza da: etorkizuneko komunitate batek gaurko erronka handi bat gainditu duela irudikatzea, eta ondoren galdetzea nola iritsi garen horra.

BOOKTEGI

JAIALDIA 2026

Kontzertua

# Ruper Ordorika & Mugalariak



Arkaitz Miner, Ruper Ordorika, Lutxo Neira, Felix Buff

**non:**
Sutegi Kultur Etxean

**noiz:**
Urriaren 31n - 19:00etan

**nola:**
Sarrerak usurbilkultura.eus –en daude eskuragai.

BOOKTEGI
JAIALDIA 2026

Filma

# Ahaldatu

**non:**
Sutegi Kultur Etxean

**noiz:**
Azaroaren 1ean 11:00etan



2025eko urriaren 17an, Sutegin, Mihise taldeak bere bigarren diskoa aurkeztu zuen: *Ahaldatu*.

Kontzertua grabatu genuen, eta aurtengo Booktegi Jaialdian aurkeztuko dugu kontzertuaren filma.

BOOKTEGI

JAIALDIA 2026



Ekitaldi esperimentala

# Anariketa

**non:**
Sutegi Kultur Etxean

**noiz:**
Azaroaren 1ean 12:00etan

Iazko *Rupertorio* ekitaldian bezala, aurten hainbat lagunek Anariren abesti bana hautatu dute, eta zuzenean abesti horiek interpretatu egingo dituzte, nork bere erara.

Abesti batzuen bertsio bereziak entzun ahalko ditugu, bai eta letren inguruko hausnarketak, anekdotak, errezitaldiak ere... Interpretatzaile bakoitzak abestiaren inguruko ideiak, emozioak, pasarteak partekatuko ditu gurekin.

BOOKTEGI
JAIALDIA 2026

# Zumarte Musika Eskolan
* Sutegi Kultur Etxean
> Sarrerak usurbilkultura.eus -en

urriaren 30ean - 19:00etan * >

Solasaldia
**Ruper Ordorikarekin**

urriaren 31n - 11:00etan #

***Elkarri Irakurriz*** solasaldiak

17:00etan *
***Booktubers*** bideoak
***Arbaso Eguna*** mahai-jokoa

19:00etan * >
**Ruper Ordorika & Mugalariak**

azaroaren 1ean – 11:00etan *
**Mihise – *Ahaldatu*** filma

12:00etan *
***Anariketa***

Iñigo Santrustegi
Itxaro Borda
Agustin Arrieta
Amaiur Epher

Bea Salaberri
Ruper Ordorika
Lizar Begoña
Irati Zubia

Harkaitz Cano
Mihise
Ugaitz Agirre
Udarregi Ikastola

# BOOKTEGI
JAIALDIA 2026